

Gida didaktikoa

**HAN ETA HEMENGO
IPUINAK I**

**PATXI
ERREMENTARIA**

PATXI ERREMENTARIA

Gida didaktikoaren azalpena

- Gai-zerrenda : 1. or.
- Helburuak 2. or.
- Jarduerak 2. or.
- 1.- Ahozko hizkuntza 5. or
- 2.- Idatzizko hizkuntza 6. or
- Gidoi literarioa 4. or.

Bibliografia 15.or.

Egileak 16.or.

HELBURUAK:

EDUKIAK:

Jarrerak:

Begirunea.
Zuzentasuna.
Ordena.

PROZEDURAK:

A.AHOZKO TESTUAK ULERTZEA:

a.Narrazioa: ipuin fantastikoa.

B.AHOZKO ETA IDATZIZKO TESTUAK EKOIZTEA:

a.Narrazioa: ipuin fantastikoa.

1. Hari kronologikoari jarraitzen saiatzea.
2. Izenburua eta pertsonaien izenak bereiztea.

b.Elkarrizketa:

1. Zuzendua
2. Imitazioa

KONTZEPTUAK:

Denborazko nozioak: lehen / ondoren.

Idazketa: izenburua. Esaldiak / hitzak / letrak.

Koherentzia: ipuinari ez dagokiona bereiztea.

Lexikoa:

JARDUERAK:

TALDE HANDIETAN

1. Irakasleak ipuina kontatuko du, beste ipuinetako zatiak erantsiz. Haurrek esan egin behar diote gaiez aldatu duenean.

2. Asmakizunak:

- a.Matxarda
- b.Burdinola
- c.Pikondoa

3. Ikasi aho-korapiloa:

"Pika hau-hau sagar eta intxaur, pika hea-hea sagar eta pera.

4. Ikasi lelo hau eta errepikatu binaka. Hasieran, galderak irakasleak egingo ditu .

Kukurruku, zer duzu?

Sudurrean min

Nork egin?

Patxi

Patxi non da?

Burdinolan,

Burdinola, non?

Suak erre!

Sua, non?

Urak itzali!

Ura, non?

Idiak edan

Idia, non?

Alorreatan

Alorreatan, zertan?

Garia ereiten

Garia, zertarako?

Oiloari emateko

Oiloa, zertarako?

Mundu guztiari jaten emateko!

TALDE TXIKIETAN

Osatu ipuina, etxera eramateko:

1. Gogoratu denon artean ipuineko ekintza garrantzitsuenak.

2. Jarri ordenan ipuineko marrazkiak, talde txikietan.

3. Izenburua azalean ipini beharko dute. Horretarako, mahaian dauden txartelen artetik egokia dena aukeratu beharko dute:

4. Irakasleak irakurriko ditu, eta hurrek bereizi egin beharko dute Patxi esaten duenean.

5. Ipuineko biñetetan, Patxi hitza agertzen denean, inguratu egin beharko dute.

6. Ikasi pertsonaien izenak bereizten:

Axut - Txerren - Zirt - Zart - Patxi

7. Bilatu berdintasunak pertsonaien izenen eta taldekoenen artean:

-Elkarrizketa: Ipuineko elkarrizketaren imitazioa.

A) Bizente.- Patxi, lasai zaitez. Konturatu zara zeinen gaiztoa zaren?

Patxi.- Eta zer?

Bizente.- Eta zer? Zu baino gaiztoagorik ez dagoela!

Patxi.- (Mehatzuka.) Ez esan lelokeriarik, eta alde, mingaina galdu nahi ez baduzu.

Bizente.- (Jendeari eta burumakur.) Honek ez du atarramenturik. Aska ezazue.

Patxi.- Hurrengoan, zuek berotuko zaituztet. Kontuz ibili gero nirekin!

B) Zart.- Kaixo, Patxi! Zure bila etorri naiz. Badakizu nor naizen?

Patxi.- Jakingo ez dut, ba? Zer uste duzu, tontoa naizela, ala?

Zart.- Orduan, prest zaude?

Patxi.- Ni bai, baina zu gose eta egarri izango zara, oso bide luzea egin duzu eta.

Patxi.- Eta, gainera, itzuli egin behar duzu.

Patxi.- Eser zaitez, eta jan ezazu zerbait.

Patxi.- Zer moduz jaten da infernuan?

Patxi.- Egia da bero handia egiten duela?
 Zart.- Bapo! Prest nago abiatzeko.
 Patxi.- (Ironiaz.) Zer, bagoaz ala ez?
 Zart.- Aska nazazu!
 Patxi.- Hor geratuko zara! Aditu? Zoaz infernura! Ja, ja, ja!
 Patxi.- Bueno, Zart, honezkero eskarmentatua izango zara. Zoaz, eta ez dakizula burura berriro agertzea!
 Zart.- Eskerrak errukitu zaidan! Bestela, hantxe egongo nintzen itsatsita.
 Txerren.- (Axuti.) Zuk joan beharko duzu.
 Zart.- (Axuti.) Kontuz ibili gero, ez zaitetz aulkian eser.
 Axut.- Lasai, ez naiz eseriko.

Gidoi literarioa:

PATXI ERREMENTARIA

IZENBURUA : Patxi errementaria
 LAMIA: (OFF) Bazen behin errementari bat. Patxi zuen izena. / Burdinazko tresnak egiten zituen eta konpondu ere bai, suaren laguntzarekin./ Egunak burdinolan ematen zituen lanean. / Oso jenio bizia zeukan.
 PATXI: (OFF) (Zurrunga hotsak, hasieratik.)
 PATXI: (Zurrungaka ari da. Bueltaka dabil ohean.)
 PATXI: (Ad Lib) Tira... altxatzeko ordua! (Ad Lib).
 LAMIA: (OFF) Egun batean, ohetik altxatu eta gosaltzera zihoala, gizon batek atea jo zuen premia larriz.
 PATXI: (Haserre eta erdi lo.)(Ad Lib) / (Ad Lib) Nor izango da hain goiz? / (Madarikazioak) / (Ozenki, ateraino doalarik.) Nork du horrenbesteko presa? / Egon, egon, ez gehiago jo! / Hau da zarata!
 PATXI: (Madarikazioak)
 GONTZAL: Patxi
 PATXI: Zeeer? **4:30**
 GONTZAL: Gurdiaren ardatza puskatu egin da berriro. Gaizki konpondu zenidan, antza.
 PATXI: Gaizki konpondu, nik?
 GONTZAL: Bai, eta bihar azokara joan beharra daukat. Lehenbailehen konpondu beharko duzu.
 PATXI: (Ad Lib) Ez nazazu estutu, e?
 GONTZAL: Ez duzu ulertu, ala? Biharko konponduta egon behar du.
 PATXI: Ez zaitetz kakalarria izan, gero!
 GONTZAL: Ondo konpondu izan bazenit, ...
 PATXI: (Ad Lib) Zer esan duzu? (Ad Lib) Nik gaizki konpondu?
 GONTZAL: Nork bestela?
 PATXI: Ken zaitetz nire bistatik , matxardekin mihi zikin hori moztea nahi ez baduzu behintzat! (Ad Lib)
 GONTZAL: E? Zure errua ez da ba? Eta gainera hau?

PATXI: Bai, (mehatxuka eta garraxika.) Eta gainera mailuarekin txikitu egingo zaitut. Alde, ospa hemendik! / (Ad Lib)

GONTZAL: Baina, baina...

ANTONNI: Zurrumurruak

IGNAZIA: Zurrumurruak

LAMIA: (OFF) Handik igaro zirenak atariaren aurrean gelditu ziren, iskanbila hura entzunda.

PATXI: (OFF) Ziur nahita apurtu duzula, baldar horrek!

ANTONNI: Ari da berriz ere Patxi. Nori ari ote zaio errieta egiten?

(OFF) IGNAZIA: Astatotroa da gero!

LAMIA: (Off) Herritarrek ondo ezagutzen zuten Patxiren jenio bizia. Ohituta zeuden haren iskanbilak entzuten.

ANTONNI: Zurrumurruak 5:41

IGNAZIA: Zurrumurruak

BIXENTE: Zurrumurruak

GONTZAL: Aguazilari esango diot; isuna jarriko dizu. Ikusiko duzu!

PATXI: (OFF) Zer? Aguazilari? Esaiozu etortzeko, eta hartara berari ere mihia moztuko diot!

LAMIA: (OFF) Zarata hain zen handia, aguazila inork deitu gabe etorri zen.

BIXENTE: (Aguazila.) Et, et, et... Zer da istilu hau?

GONTZAL: Honek...

PATXI: Zoaz pikutara, zuri ez dagokizu eta!

GONTZAL: Ikusten?...

BIXENTE: (Ad Lib)

ANTONNI: Zurrumurruak

IGNAZIA: Zurrumurruak GONTZAL: Aurreko batean, gaizki konpondu zidan gurdia eta, jakina, berehala puskatu zait berriro.

BIXENTE: Bai, bai...

PATXI: (Ad Lib) Gaizki konpondu nizula berriro esaten baduzu, mihia erauziko dizut. Aditu didazu? (Ad Lib)

(OFF) GONTZAL: Baina, Patxi, lasaitu zaitez. Burua galdu duzu?

GONTZAL: Lagundu, mesedez,! Astakirten hutsa da! Oi, oi!

BIXENTE: Ez zaitez horren astoa izan, Patxi, hau hitz eginez konpon daiteke.

PATXI: (Ad Lib) / Hitz egin?

BIXENTE: Bai!

PATXI: Horrek ez du sekula santan hitz egingo, mihia kenduko diot eta.

BIXENTE: (Ad Lib)

GONTZAL: Lagundu! Mihia moztu nahi dit!

PATXI: Mihi zikin halakoa, gezurri halakoa! Brr! (OFF) Harrapatzen bazaitut! / Ikusiko duzu! / Esan agur zeure mihi zikin horri! / Ez duzu berriro gezurrik esango!

GONTZAL: (Ad Lib) Lagundu / Mesedez... / lagundu...

ANTONNI: Entzun duzu hori?

Sinestezina da!

Halakorik! (etab.)

IGNAZIA: Ai, ene. Erotuta dago.

Gontzal gizarajoa!

Eta aguazilak zer egiten du? (etab.)

GONTZAL: O! Lagundu, lagundu, Ooooo! 7:10

(Patxi oihuka Gontzalen atzetik, jendeak geldi arazi nahi dio.)

IGNAZIA: Baina Gontzal, zer gertatu da?

GONTZAL: Mihia moztu nahi dit, basati horrek.

ANTONNI: Jesus, Maria ta Jose!

IGNAZIA: Nola jarri den gure Patxi, sutan dago!

GONTZAL: (Ad Lib)

ANTONNI: Bai, Gontzal gizagaixoa! Ez nuke bere lekuan egon nahi.

GONTZAL: Lagundu, harrapatu egingo nau! Ooooo!

PATXI: (Ad Lib) Ez joan ihesi, zatoz!

IGNAZIA: (Ad Lib)

ANTONNI: (Ad Lib)

(Jendeak Patxi harrapatu du.)

PATXI: (Ad Lib)

BIXENTE: Aizu, Patxi... lasaitu, mesedez.

GONTZAL: Lagundu, lagundu! Mihia moztu nahi dit! Lagundu!

BIXENTE: Patxi, gelditu zaitez, ez egin astakeriarik!

IGNAZIA: (Ad Lib)

PATXI: Utz nazazue, askatu! Harrapatu egingo dut!

BIXENTE: Patxi, lasaitu zaitez, konturatu zara zeinen gaiztoa zaren?

IGNAZIA: Hori, hori...

PATXI: Gaiztoa?

BIXENTE: Bai

PATXI: Eta zer?

BIXENTE: E-e-eta zer? Zu baino gaiztoagorik ez dagoela!

PATXI: (Mehatxuka.) (Ad Lib) Ez esan lelokeriarik eta alde, mingaina galdu nahi ez baduzu. /

(OFF) (Ad Lib)

BIXENTE: (Jendeari eta burumakur.) Hau da hau gizona! / Honek ez du fundamenturik, aska ezazue!

ANTONNI: Askatu?

BIXENTE: Bai.

(Askatu egiten dute.)

ANTONNI: Ez duzu merezi, baina, tira...

PATXI: Eta zu, mutur luze hori, ez zaitez nire gauzetan sartu, aditu?

ANTONNI: Barkatu, Patxi, ez da berriro gertatuko.

PATXI: Hurrengoan zuok berotuko zaituztet. Kontuz ibili gero nirekin!

PATXI: (Aguazilari). Eta zu, zer? Ez duzu lanik? Nork deitu dizu?

BIXENTE: Ez zaitez horrela jarri.

ANTONNI: Ene, hau da hau gizona!

GONTZAL: Hamaika ikusteko jaiok gara! / Goazen Ignazia.

IGNAZIA: Bai, bai, zurekin noa, bestela...

BIXENTE: (Ad Lib)

ANTONNI: (Ad Lib)

LAMIA: Herriko lagunek ez zekiten zer egin, aguazilak berak ere ez. Guztiz kezkatuta eta beldurtuta geratu ziren. Eta hori gutxi balitz, txerrentxo bat hurbildu zitzaien.

ANTONNI: (Ad Lib)

IGNAZIA: (Ad Lib)

ZART: Zeer? Zeer? Zer gertatzen da? Zer Gertatzen da? (Barre)

LAMIA: Txerrentxoa Patxiren etxera etorria zen, zaratak erakarrita. Ondoren infernura joan zen ikusitakoa Txerreni kontatzera.

ZART: (Ad Lib) Nagusi, nagusi!

TXERREN: Zer?

ZART: Gizon gaizto-gaizto bat aurkitu dut!

TXERREN: Bai? Eta jakin daiteke nor den? / E?

ZART: Hazparneko errementaria.

9:00

TXERREN: Nola dakizu?

ZART: Handik inguruan nenbilen gaur, eta gizajo bati egundoko mehatxuak botatzen zebilela harrapatu dut.

TXERREN: Hori ez da ezer.

ZART: Baina, jauna... Ezetz? Mihia ez zion ba erauzi nahi?

TXERREN: Bai? Kontxo, kontxo! Zoaz Hazparnera eta ekarri hona (Ad Lib).

LAMIA: (OFF) Txerrentxoak Zart zuen izena, eta esana betez, Patxi errementariaren burdinolara joan zen. Patxik lanean ziharduen, Zartek atea jo zuenean.

(Atean jotzearen hotsa.)

PATXI: (Ad Lib) // Irekita dago, sartu barrura.

LAMIA: (OFF) Hartara, sartu egin zen. Patxik ez zuen ezer esan baina berehala konturatu zen Zart Txerrenen laguntzailea zela, eta amarru bat bururatu zitzaion.

ZART: Kaixo, Patxi. / Zer? Zertan ari zara? Hara, errementaria zara.

PATXI: Hala da, bai... Zer nahi duzu?

ZART: Nik? Bueno, ba.. zera... Zure bila etorri naiz. Badakizu nor naizen?

PATXI: Jakingo ez dut ba! / Zer uste duzu, tontoa naizela ala?

ZART: Orduan, prest zaude?

PATXI: Ni bai, baina zu gose eta egarri izango zara. Oso bide luzea egin duzu eta.

ZART: Ba... bai...

LAMIA: (OFF) Zartek ongi iritzi zion.

PATXI: Eta, gainera, bueltan ere joan beharko duzu.

ZART: Bai... / tira...

LAMIA: (OFF) Zartek gonbitea onartu zuen. Zerbait sumatzen zuen, baina, tira! Txerrentxo bati zer txarrik gerta lekiok? Ezer ez!

PATXI: Zatoz, zatoz...

PATXI: Eser zaitez eta jan ezazu zerbait.

ZART: Harrigarria!

LAMIA: (OFF) Halaxe ba, aulkian eseri eta jaten hasi zen.

ZART: (Ad Lib)

PATXI: Zer moduz jaten da infernua?

ZART: (Ad Lib)PATXI: (Barrea)

LAMIA: (OFF) Baina ez zion erantzun, jan eta jan ari zen. Patxik katilu bat esne eskaini zion. Ia ezin zion barreari eutsi, Zartek amua irentsi zuen-da.

ZART: Tira, ardo pixka bat edango dut.

PATXI: Egia da bero larria egiten duela?

ZART: (Jateari utzi dio, korrokada bat egin du, muturra eskuaz garbitu du.)

(Korrokadaren hotsa).

Bapo! Prest nago abiatzeko (Ad Lib)

PATXI: (Ironiaz.) Zer, bagoaz ala ez?

LAMIA: (OFF) Altxatzerakoan konturatu zen ezin zela zutitu, aulkari itsatsita baitzegoen. Patxik barre egiten zion algaraka.

PATXI: (Barrea)

ZART: (Ad Lib)

ZART: Aska nazazu! (Ad Lib)

PATXI: (Barrea)Hor geratuko zara, aditu? Zoaz infernura! Kar, kar, kar!

ZART: (Ad Lib) Ene! Ondo sartu dit ziria. Txerrenek jakiten duenean, nireak egin du.

PATXI: Ja, ja, ja!

ZART: A, zer tontoa izan naizen, hau lotsa!

LAMIA: (OFF) Eta hantxe geratu zen gure Zart. Patxik, berriz, bere hartan jarraitu zuen, jendea izutzen. Egun asko joan eta gero, Zart ordurako zentzatuta egongo zela iruditu zitzaion Patxiri.

IGNAZIA: (Ad Lib)

ANTONNI: (Ad Lib)

PATXI: UuuuuuHH!! / Kar, kar, kar... / (Abestu)
(Patxi etxean da. Zartekin dago.)

PATXI: Bueno Zart, honezkero eskarmentu hartuko zenuen. Zoaz eta ez zaitez berriro hemendik agertu. **13:36**

ZART: Bai... ez... (Ad Lib)
(Zart altxatu da eta ziztu bizian ospa egin du.)
(Infernuan, Txerren, Zart eta Axut.)

ZART: Eskerrak errukitu zaidan; bestela, han egongo nintzateke itsatsita (Ad Lib).

AXUT: Bo, ergel hori...

TXERREN: (Axuti.) Zuk joan beharko duzu.

AXUT: Nik?

TXERREN: Bai, zuk.

ZART: (Axuti.) Axut, Axut, badakizu, kontuz ibili gero, ez zaitez aulkian eseri.

AXUT: Lasai, lasai... ez naiz eseriko. **14:01**

LAMIA: (OFF) Axut Patxiren etxera joan zen eta hantxe aurkitu zuen lanean lasai-lasai.

AXUT: Kaixo, Patxi! Zure bila etorri naiz. Badakizu nor naizen?

PATXI: Jakingo ez dut ba? Zer uste duzu, tontoa naizela? (Ad Lib)

AXUT: (Ad Lib) Orduan, prest zaude?

PATXI: Prest? Ni bai, baina zu goseak eta egarri izango zara. Oso bide luzea egin duzu.

AXUT: (Ad Lib) (Axutek buruarekin baietz egiten du.)

PATXI: Eta gainera bueltan ere joan beharko duzu..

AXUT: (Ad Lib) (Axutek buruarekin baietz egiten du.)PATXI: Zatoz... zatoz nirekin. Etorri lasai, ez izan beldur...

AXUT: (Ad Lib)

PATXI: Eseri zaitez eta jan ezazu zerbait.

AXUT: Ez, ez naiz eseriko.Ez, ez...PATXI: Etzatea nahiago duzu? Ji, ji, ji...

AXUT: Uhm... Bai.

PATXI: Etzan zaitez ba, mahaiian.

LAMIA: (OFF) Axut mahaiian etzan zen. Goseak akabatzen zegoen eta egia esateko, ez zen ez oso garbia: txerrien pare jaten zuen.

AXUT: (Ad Lib)

PATXI: Zer moduz jaten da infernuan? / (Barre)

AXUT: (Ad Lib)

LAMIA: (OFF) Axutek ez zuen erantzun, jan eta jan ari zen. Patxik katilu bat esne eman zion.

PATXI: (Ad Lib) Egia da bero larria egiten duela? (Ad Lib)

AXUT: (Jateari utzi dio, korrokada bat egin du, muturra eskuaz garbitu du.)
Korrokadaren hotsa.

AXUT: Bapo! Prest nago abiatzeko.

PATXI: (Ironiaz.) (Barrea) Zer, bagoaz ala ez? (Barre)

AXUT: (Ad Lib)

LAMIA: (OFF) Altxatzerakoan konturatu zen ezin zela jaiki, mahaiari itsatsita baitzegoen.
Patxik barre egiten zion algaraka.

AXUT: Aska nazazu! (Ad Lib)

PATXI: (Barrea) Hor geratuko zara, aditu? Zoaz infernura! Kar, kar, kar!

AXUT: (Ad Lib) Aska nazazu! (Ad Lib) Mesedez!

PATXI: Kar, kar, kar...

PATXI: (Barreak)

AXUT: (Ad Lib)

LAMIA: (OFF) Eta hantxe geratu zen gure Axut. Patxik, berriz, bere hartan jarraitu zuen, jendea izutzen. Egun asko joan eta gero, Axut ordurako eskarmentatuta egongo zela iruditu zitzaion Patxiri.

(Patxi etxean da. Axutekin dago.)

PATXI: Zer, Bixente, belarria moztuko dizut? Kar, kar, kar...

BIXENTE: (Ad Lib)

PATXI: Bueno Axut, dagoeneko zentzatuta izango zara...

AXUT: (Ad Lib) Bai, bai...

PATXI: ... Zoaz eta ez zaitez berriro hemendik agertu.

AXUT: Bai, agur... (Ad Lib)

17:08

LAMIA: (OFF) Altxatu eta ziztu bizian ospa egin zuen. Infernuan, Txerreni eta txerrentxoei eman zien gertatutakoaren berri.

AXUT: Eskerrak erruki izan den; bestela, han egongo nintzateke itsatsita.

TXERREN: (Ad Lib)

GATZ: (Ad Lib)

LAMIA: (OFF) Txerrenek, apur pentsatu ondoren, Gatz bidaltzea erabaki zuen.

TXERREN: (Gatzi) Zuk joan beharko duzu.

GATZ: Bai, bai... Pozik gainera. Joango naiz, joango naiz.

AXUT: Kontuz ibili gero, ez zaitez mahaian etzan.

GATZ: Ados / Lasai, ez naiz etzango.

LAMIA: (OFF) Gatz Patxiren etxera joan zen eta hantxe aurkitu zuen lanean lasai-lasai. Egia esateko, jenio bizia bazuen ere, Patxi langile fina zen.

PATXI: (Ad Lib)

GATZ: Kaixo, Patxi! Zure bila etorri naiz. Badakizu nor naizen?

PATXI: Jakingo ez dut ba?

GATZ: (Ad Lib)

PATXI: Zer uste duzu, tontoa naizela?

GATZ: (Ad Lib) Orduan, prest zaude?

PATXI: Ni bai, baina zu goseak eta egarri izango zara. Oso bide luzea egin duzu.

GATZ: (Ad Lib) Ba... bai...

PATXI: Eta gainera bueltan ere joan beharko duzu..

GATZ: (Ad Lib)

(Gatzek buruarekin baietz egiten du.)

PATXI: Eser zaitez eta jan ezazu zerbait.

GATZ: Bai... ez... ezin dut.. zera...

LAMIA: (OFF) Gatz ez zen fidatzen.

GATZ: Eeehm... ideia bat bururatu zait... Eeehm... Jango dut, baina zutik. Ji, ji, ji...

PATXI: Agian baratzeko zuhaitzera igo nahi duzu, jateko.

LAMIA: (OFF) Gatzi ez zitzaion ideia txarra iruditu.

GATZ: (Ad Lib) Ondo esanda dago hori! / (Ad Lib)

PATXI: Kar, kar, kar...

LAMIA: (OFF) Gatz zuhaitzera igo eta jaten hasi zen. Patxi ondoan geratu zen. Pozarren zegoen Gatzek ere amua irentsi zuelako, ondo irentsi ere!

PATXI: ... (Barre) Zer moduz jaten da infernuan? (Barre)

(Zartek ez du erantzun, jan eta jan egiten du.)

GATZ: (Ad Lib)

PATXI: Egia da bero larria egiten duela?

19:15

GATZ: (Ad Lib)GATZ: (Jateari utzi dio, korrokada bat egin du, muturra eskuaz garbitu du.)

Korrokadaren hotsa.

Bapo! Prest nago abiatzeko.

PATXI: (Ironiaz.) Zer, bagoaz ala ez? (Barre)
LAMIA: (OFF) Altxatzerakoan konturatu zen ezin zela jaiki, zuhaitzari itsatsita baitzegoen.
GATZ: (Ad Lib) Aska nazazu!
PATXI: Hor geratuko zara, aditu? Zoaz infernura! Kar, kar, kar!
GATZ: (Ad Lib) Aska nazazu...
GONTZAL: (Ad Lib) Lagundu... lagundu...
PATXI: (Ad Lib) Belarria moztuko dizut... Kar, kar, kar...
LAMIA: (OFF) Hantxe geratu zen gure Gatz. Patxik, berriz, bere hartan jarraitu zuen, jendea izutzen. Egun asko joan eta gero, Gatz ordurako zentzatuta egongo zela iruditu zitzaion Patxiri.
PATXI: Bueno Gatz, dagoeneko eskarmentatua izango zara, zoaz eta ez zaitez berriro hemendik agertu.
GATZ: Bai... ez... (Ad Lib)
LAMIA: (OFF) Gatzek ziztu bizian ospa egin zuen. Infernuan, Txerreni eta txerrentxoei kontatu zien jazotakoa.
ZART: (Ad Lib)
AXUT: (Ad Lib)
GATZ: Eskerrak erruki izan den; bestela, han egongo nintzateke itsatsita (Negar). // (Ad Lib) // (Negar)
TXERREN: (Ad Lib) Ahaztu dezagun kontu hau, lotsagarri geratu gara.
LAMIA: (OFF) Denbora luzea pasata, Patxi gero eta makalago zegoen, indarrak falta zituen lan egiteko. Orduan konturatu zen azken arnasa emateko ordua iritsi zitzaiola.
PATXI: (Hasperenak) / Negarrak / Nere ordua heldu da. Infernura joan beharko dut. // (Ad Lib) // (Ad Lib)
LAMIA: (OFF) Infernura joateko prestatu zen. Lanabesak hartu eta infernurako bideari jarraitu zion. Heldu zenean...
PATXI: (Ad Lib)
AXUT: (Ad Lib) Bat, bi, hiru...
GATZ: (Ad Lib) Nik lau...
ZART: (Ad Lib) Irabazi dut, irabazi dut...
TXERREN: (Ad Lib)
PATXI: Axut, Gatz, Zart! Hemen naukazue! / Ireki atea!
AXUT: Entzun duzue?
ZART: Bai, bai..
GATZ: (Ad Lib)
TXERREN: Zer izan da hori?
GATZ: Ene! Patxi dator!, Patxi dator, Patxi dator... (Ad Lib)
TXERREN: Zer? (Ad Lib)
AXUT: Hau beldurra!
ZART: Baaaaaii!! (Ad Lib)
LAMIA: (OFF) Infernu barruan, txerrentxoak ez ziren ausartzen atea irekitzen.
ZART: (Ad Lib) Zer egin dezakegu?... Zer egingo dugu?...
ZART: Atea itxi dezagun; hartara, ez du sartzerik izango.
LAMIA: (OFF) Hirurak batera, atea barrutik itxi zuten ohol batekin eta arineketan.

23:15

AXUT: (Ad Lib)
GATZ: (Ad Lib)
ZART: (Ad Lib)
TXERREN: (Ad Lib)
PATXI: (OFF)Axut, Gatz, Zart! Etorri naiz! / (OFF)Ireki atea! Non zarete?

AXUT: (Ad Lib) Ez esan ezer...

GATZ: (Ad Lib) Ez ireki, ez ireki...

ZART: (Ad Lib) Ai, ene, ze beldurra...

TXERREN: (Ad Lib) Hau lotsa! Gu errementariaren beldur! (Ad Lib)

PATXI: (OFF) Baina... Ez zineten ni hemen ikusteko irrikan? / Ireki, Ireki ezazue!(OFF)

AXUT: (Ad Lib)

GATZ: (Ad Lib)

ZART: (Ad Lib)

LAMIA: (OFF) Patxik matxardak sartu zituen zirrikitu batetik txerrentxoak harrapatzeko.

ZART: Ez, lagundu! Oooooo! Lagundu! / Oi, nire sudurra! Aiiiiii! AXUT: (Ad Lib)

GATZ: (Ad Lib)

ZART: (Ad Lib) Oi, nire sudurra! Aiiiiii! LAMIA: (OFF) Zarti sudurretik heldu eta moztu egin zion.

(OFF) Ondoren, Patxik Axut harrapatu zuen eta adarretatik heldu zion matxardekin.

AXUT: Ez, lagundu! Oooooo! Lagundu! (Arrastaka eraman egin du, matxardak sartu eta adartxo bat moztu dio.) (Adarrik gabe.) Oi, nire adarra! Aiiiiii!

GATZ: Ez, lagundu! Oooooo! Lagundu!

ZART: (Ad Lib)

AXUT: (Ad Lib)

LAMIA: (OFF) Matxardak berriro sartu eta beste adarra moztu zion.

GATZ: Oi, nire adarra! Aiiiiii!

LAMIA: (OFF) Txerren beldurrak airean zegoen. Ateraino hurreratu zen, Patxirekin ituna egin nahi zuen-eta.

TXERREN: (Ad Lib) / Patxi, mesedez, ez jarraitu horrela.

PATXI: (OFF) Nor zara zu?

TXERREN: Txerren naiz.

PATXI: (OFF)Txerren? Nola dakit egia dela? Ez zaitut inoiz ikusi. (Infernuko atearen beste aldean, Patxi burdin batekin.)

TXERREN: (OFF) (Ad Lib) / Sinetsidazu, Txerren naiz!

PATXI: (Burdinari eragiten dio zirrikitutik sartzeko.) Ikusi egin nahi zaitut ea egia den! Jar zaitez zirrikituaren aurrean eta ikusi ahal izango zaitut. (Infernuaren beste aldean, Txerren zuloaren aurrean aurpegia jarri du.)

TXERREN: (Ad Lib) Begira Patxi..., ez duzu infernura etorri behar,... (Infernuaren bestea aldean Patxi zuloari adi adi, burnia josteko prest, Txerrenen aurpegia agertzen da zatika...)

PATXI: (Ad Lib)

TXERREN: (OFF)...gugatik ez kezkatu, konfor...? (Patxik burdina begian josi dio, odol berdea dariola barra-barra.)

TXERREN: (OFF)...Aiiiiii! Aiiii! Nire begia! (Orroka.)

ZART: (Ad Lib)

AXUT: (Ad Lib)

GATZ: (Ad Lib)LAMIA: (OFF) Txerren orroka hasi zen. Eta nondik zebilen ezin ikusirik, sutara erori zen. / Zart, Axut eta Gatz, beldurraren beldurrez bazter batean zeuden ezkutatuta.. Sua areagotu egin zen eta den-dena erre zen. / Orduan irten ziren txerrentxoak. / Etxerik gabe geratu ziren, eta ez zekiten nora joan.

PATXI: Eta orain, zer egingo duzue?

ZART: Aiiii! Ui!

GATZ: Oooooooooo! Ez!

AXUT: Ez, ez, oooooo!

LAMIA: (OFF) Txerrentxoak guztiz ikaratuta zeuden eta erruki izatea eskatu zioten.

ZART: Aiiii! Ui!

GATZ: Ooooooooo! Ez!

AXUT: Ez, ez, oooooo!

ZART: Aiiii! Ez minik egin!

GATZ: Oo! Txerrenek agindu zigun! (Ad Lib)

AXUT: Mesedez, erruki zaitez, begira nola gauden! (Negarrez) Ai, ai, ai!

PATXI: Ez beldurtu, nahi baduzue nire etxera etorriko zarete. Sua oraindik piztuta egongo da!

26:26

ZART: (Ad Lib)

GATZ: (Ad Lib)

AXUT: (Ad Lib) ZART: Baiiii? / (Ad Lib)

GATZ: E? Benetan? / (Ad Lib)

AXUT: Hori pagotxa! Bai, bai, bai! / (Ad Lib)

PATXI: (Ad Lib)

LAMIA: (OFF) Eta halaxe, laurak Patxiren etxerantz abiatu ziren. Handik aurrera, lagun handiak izan ziren.

LAMIA: Elkarrekin poz aparretan bizi ziren. Egunak gozo-gozo ematen zituzten jaten, etzanda edo karta-jokoan...

ZART: (Ad Lib)

AXUT: (Ad Lib)

GATZ: (Ad Lib)

LAMIA: Patxik suari eragiten zion, txerrentxoek hotzik ez izateko.

PATXI: Kar, kar, kar... Aguuuuuuuur. / Kar, kar, kar...

BIBLIOGRAFIA.

AZKUE, R. M. (1989). Euskalerraren yakintza. Literatura popular del País Vasco II: Cuentos y Leyendas. Euskaltzaindia & Espasa Calpe. Madrid.

Mundu zabaleko ipuinak (1981) Gero argitaletxea. Bilbo.

DUESO, J. (1997). Cuentos y leyendas de Euskal Herria fantástica ROGER argitaletxea. Donostia

BARANDIARAN IRIZAR, L. (1995). Antología de fábulas, cuentos y leyendas del País Vasco. Donostia

BASILE, J. B. (1991). El pentamerón. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.

JACOBS, J.(1987). Cuentos de hadas célticos. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.

ANDERSEN, C. (1973). La sombra y otros cuentos. Alianza Editorial, S.A. Madrid.

CURTIS, E.S.(1999). Las flechas mágicas y otros relatos de los indios cheyenes, comanches, wíchitas... José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona

GUELBENZU, J. M. (1996). Cuentos populares españoles. Siruela argitaletxea. Bartzelona.

AFANASIEV, A. N. (1983). Cuentos populares rusos I. Anaya argitaletxea.

El gran encuentro. liburu bilduma. (1995). SM argitaletxea.

PHILIP, N. (1995). El libro ilustrado de los mitos. Ediciones BUHO:, S.Alizia.

GIBSON, M. (1984). Monstruos, dioses y hombres de la mitología griega. Anaya

TAO TAO LIU SANDERS. (1984). "Dragones, dioses y espíritus de la mitología china" Anaya

BRANSTON, B. (1984). Dioses y héroes de la mitología vikinga. Anaya

Interneteko helbideak:

www.Zernola.net: Alegiak/alegien zerrenda.

<http://www.pnte.cfnavarra.es/kzeta/ipuina.htm>

<http://www.teatroa.com/ipuinak.html>

<http://www.teatroa.com/ipuinak/36lamia.html>

EGILEAK

**GOIATZ
MULTIMEDIA, S.L.**

PRODUKTOREA:

Luisa Calvo

**EGITASMOA, GIDOIA
ETA GIDA DIDAKTIKOA:**

Luisa Calvo

**GIDA DIDAKTIKOAREN
EUSKARAKO ARDURADUNA:**

Joan Ignazio Bereziartua

**ZUZENDARITZA ETA
ERREALIZAZIOA:**

Mikel Val

SOINU BANDA:

Inhar Val

EDIZIOA:

Goiatz Multimedia, S.L.

TXOTXONGILOAK:
Goiatz Multimedia, S.L.

DEKORATUAK:
Sara García

TXOTXONGIOLARIAK:
Macarena Sobrón
Noemí Sobrón
Ana M^a Rodríguez

K 2 0 0 0 S . A .

Produktore exekutiboa:
Tomas Ugalde

Euskarako arduraduna:
Josu Varela

Bikoizketako zuzendaria:
Alvaro Sánchez

Sarrerako kanta:
Ana Tere Bengoetxea

Ahotsak:

Monika Erdozia

J. L. Irigoien

Pedro Arrieta

Ana T. Bengoetxea

Ramón F. De Castro

Kepa Kueto

Jon Goirizelaia

Tere Jaio

Eduardo Gorriño

Audioko teknikariak:

Ricardo Goti

Antonio González

Javier Artetxe

Nahasketak:

Gorka Lara

Juan C. Cantera

Produkzioko laguntzailea:

Ana Urresti

Koordinatzailea:

Jon Arce

EIMA 2000

**Ikasmaterial honek Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailaren egokitasun-aitormena du:
2004-02-19**

LEGE GORDAILUA: : SS-557/03

**L.C. PRODUKTOREA
tel.: 945-230715**